

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

5250

375/2024 DEKRETUA, azaroaren 12koa, Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzako Organoaren zuzendaria izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko azaroaren 12an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Lide Amilibia Bergaretxe andrea Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzako Organoaren zuzendari izendatzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2024ko azaroaren 12tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 12an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.